

# Sustrai Erakuntza: Las afecciones al medio ambiente de MAGNA aumentarían también con su nuevo proyecto en Zubiri/MAGNAren eragina ingurumenean handituko da Zubirin planta zabalteko proiektu berriarekin



Extraído de:

<https://fundacionsustrai.org/las-afecciones-al-medio-ambiente-de-magna-aumentarian-tambien-con-su-nuevo-proyecto-en-zubiri/>

Como ya es conocido, la fundación Sustrai Erakuntza ha analizado los impactos que produciría un proyecto de minería a cielo abierto de magnesitas en la zona de Erdiz, cerca del alto de **Artesiaga**. Y ha constatado que la implantación de la nueva explotación tendría consecuencias desastrosas para el medio ambiente y la integridad de la **Zona Especial de Conservación Monte Alduide**. Pero los impactos de los nuevos proyectos de la empresa MAGNA no quedan ahí. Junto a lo anterior, la empresa también ha presentado un **proyecto de ampliar la planta de tratamiento de mineral** que tiene en **Zubiri**.

Para poner en contexto el conjunto de la operación proyectada, debemos de conocer los **principales datos de esta empresa**. Según la Autorización Ambiental Integrada otorgada por el Gobierno de Navarra, la empresa tiene una capacidad máxima de producción de 200.000 Tm anuales de productos derivados de la magnesita y 80.000 Tm de otros productos. Para ello precisa de un consumo anual de 4.500.000 m<sup>3</sup> de agua, que los toma del río Arga que pasa

junto a la factoría, y de 400.000 Tm anuales de mineral proveniente de las explotaciones mineras a cielo abierto de Eugi y Borobía (Soria). Para poder procesar el mineral realiza unos consumos energéticos anuales de 40.000 Tm de coque de petróleo, 4.500.000 m3 de gas natural, 20.000 Mw de electricidad y 350 Tm de gasoil.

Según la documentación presentada para ampliar la planta, que hemos analizado someramente, con el nuevo proyecto la empresa podría **aumentar su capacidad de producción anual en 70.000 Tm.**

Con la producción que realiza actualmente, la empresa de Zubiri ya es **la mas contaminante del aire en Navarra**, tal y como denunció Ekologistak Martxan Nafarroa en 2016. En dicho año MAGNA fue la empresa de Navarra que más dióxido de azufre (SO2) emitió a la atmósfera y la segunda en emisión de dióxido de nitrógeno (NO2), según datos de las emisiones declaradas al Registro PRTR-España. En cuanto a emisiones de CO2, las empresas que mas emisiones realizan en Navarra son las centrales térmicas de Castejón, Cementos Portland de Olazti, y MAGNA de Zubiri, que en 2017 fue responsable de la emisión de 275.501 Tm, tal y como informaba Diario de Navarra con datos del Gobierno de Navarra.

En estas condiciones nos encontramos con que MAGNA puso a exposición pública su proyecto de extraer magnesitas en la zona de Artesiaga, en las mismas fechas en las que el Gobierno de Navarra informaba de que había declarado de interés foral la inversión para ampliar su planta. Y pocos días después el gobierno nos hacía llegar notificación para presentar alegaciones a dicha ampliación. Este nuevo proyecto consiste en la instalación de un nuevo horno para el procesamiento del mineral, y constituiría una nueva línea de producción en la empresa.

Nos encontramos, por tanto, una vez mas en la tesitura de tener que hacer frente a unas **peticiones de participación pública** realizadas por el Gobierno de Navarra en **pleno periodo vacacional**. En esta ocasión agravado por la **conurrencia de los dos procesos** en prácticamente las mismas fechas, y con la complejidad inherente a cuestiones técnicas de calado.

Además, el proyecto de ampliación de la planta de Zubiri viene **avalado** previamente por el Gobierno Foral. El análisis del impacto ambiental de los proyectos es el proceso por el cual se comprueba de una manera *neutral* la utilidad de un nuevo proyecto y su compatibilidad con el medio ambiente y la sociedad que lo rodea. Sin embargo, en este caso ese análisis nace completamente viciado, dado que el Gobierno de Navarra ya lo ha declarado "*de interés foral*".

De este modo, nos encontramos con un **proceso de participación pública completamente viciado** por varias condicionantes que dificultan que la población pueda participar en condiciones de transparencia y neutralidad. Pero es que además el propio proyecto de ampliación de la planta nace completamente relacionado con el otro proyecto de realizar una nueva explotación minera a cielo abierto en Erdiz. Parece evidente que el promotor espera conseguir que la nueva línea de producción se encuentre en funcionamiento para el momento en que consiguiera la autorización para

extraer material en la zona de Artesiaga. **La empresa quiere aumentar su producción, y para ello le es imprescindible la magnesita que pueda extraer de Erdiz.**

Sin embargo, tal y como hemos anunciado recientemente, consideramos que el proyecto minero de Erdiz no puede realizarse, dado que se sitúa en una **zona en el que este tipo de actividades no son compatibles con su pretendida conservación**. En nuestra web hemos publicado además un reportaje fotográfico de la zona, con indicaciones de como se vería afectada por la explotación, y donde se puede apreciar claramente los graves impactos que produciría.

Viendo la imposibilidad del nuevo proyecto minero de Erdiz, creemos que la ampliación de la planta de Zubiri es poco viable, y por lo tanto se debe de rechazar el proyecto de MAGNA.

Pero en el fondo existen razones mas poderosas aun para la oposición a este nuevo proyecto. Como se ha comentado al principio, la empresa **consume una cantidad ingente de combustibles fósiles** para realizar su producción (coque de petróleo y gas natural, principalmente). Y añadir un nuevo horno en la empresa llevará inexorablemente a un **aumento** significativo de estos consumos.

Hay que tener en cuenta que, como se ha comentado, esta empresa es actualmente la mas contaminante de la atmósfera navarra en gases como óxidos de azufre y nitrógeno, y una de las mas contaminantes en la emisión de CO2, gas principal en el proceso de Cambio Climático. En estas condiciones, la ampliación de la planta con un nuevo horno producirá un aumento en el consumo energético, y por lo tanto un **aumento en la emisión de contaminantes a la atmósfera**. Y es **significativo** el hecho de que la documentación presentada para este nuevo proyecto **no haya analizado** en ningún momento su contribución al cambio climático, algo de obligada realización según la ley 21/2013, de Evaluación de Impacto Ambiental, en la que se basa.

Además, tanto en la documentación de la empresa como en la noticia del gobierno se hace mención al aumento de los **puestos de trabajo** que la ampliación de la planta traería. Consideramos que no se puede permitir el **chantaje** que supone el uso de estos argumentos para justificar este tipo de proyectos. El empleo y la defensa del medio ambiente no son aspectos contrarios. Lo que si es contrapuesto es la **codicia de las grandes multinacionales frente a la defensa del medio ambiente y el empleo sostenibles**. El verdadero "Interés Foral" que debería declarar el Gobierno de Navarra deberían ser las políticas destinadas a crear y repartir empleo, teniendo en cuenta los condicionantes del Cambio Climático y del necesario cambio de modelo energético.

Vemos, por lo tanto, que las intenciones de MAGNA de extraer magnesita de la ZEC Monte Alduide se enmarcan en un contexto de una pretendida ampliación de su producción. En estas condiciones, creemos que la suma de los dos proyectos que ha presentado pueden convertirse en **unos de los mas destructores del medio ambiente y el equilibrio climático de los que se pretenden efectuar en Navarra**. En las condiciones en las que nos encontramos, de emergencia climática y destrucción rampante de los espacios naturales, proyectos como estos no tienen lugar, y van en dirección contraria a lo que deberían. La

fundación Sustrai Erakuntza anima a la sociedad navarra a que muestre su disconformidad con estos proyectos y trabaje a favor de alternativas mas justas. Porque la sostenibilidad ambiental y social de nuestra comunidad se encuentra en juego.

---

Jatorrizko iturria:

<https://sustrai.erakuntza.org/magnaren-eragina-ingurumenean-handituko-da-zubirin-planta-zabaltzeko-proiektu-berriarekin/>

Ezaguna denez, Sustrai Erakuntzak aztertu berri du aire zabaleko magnesita-meategiaren eragina Erdizen, **Artesiagatik** gertu. Proiektu honen ondorioz, ingurumena larriki kalteturik suertatuko da, eta **Monte Alduide Kontserbazio Bereziko** Eremua kolokan geratu. Hala ere, MAGNA enpresaren proiektu berrien eragin latzak ez dira hemen bukatzen. Erdizen egin nahi dutenaz gain, enpresak beste proiektu bat aurkeztu du **Zubirin**, hori duten **minerala tratatzeko planta handitzeko asmoz**.

Operazio honen testuingurua behar bezala ulertzeko, komeni da **enpresa honen hainbat datu ezagutzea**. Nafarroako Gobernuak emandako Ingurumen-Baimen Integratuaren arabera, enpresak urtero gehienez 200.000 tona magnesitatik eratorritako produktu ekoitz ditzake, eta bestelako produktuetako 80.000 tona. Horretarako, urtero 4.500.000 metro kubiko ur behar ditu, Zubiriko faktoriaren ondotik pasatzen den Arga ibaitik hartzen dituenak; horrekin batera, Eugi eta Borobíako (Soria) aire zabaleko meatzetan eskuratzen dituen 400.000 tona mineral ere erabiltzen ditu. Minerala prozesatu ahal izateko, 40.000 tona petrolio-koke, 4.500.000 metro kubiko gas natural, 20.000 Mw elektrizitate eta 350 tona gasoil kontsumitzen ditu.

Azken egunotan gainera aztertu dugun planta zabaltzeko dokumentazioan, **enpresak urteko ekoizpena 70.000 tona gehiago handitu nahi du**.

Egungo ekoizpenarekin, Zubiriko enpresa da **Nafarroan airea gehien kutsatzen duena**, Nafarroako Ekologistak Martxan-ek salatu bezala 2016an. Urte hartan, MAGNA izan zen sufre dioxido (SO<sub>2</sub>) gehien isuri zuena Nafarroan, eta bigarrena nitrogeno dioxidoa (NO<sub>2</sub>) igortzean, PRTR-España Erregistroan jasotako isurien datuen arabera. CO<sub>2</sub>-ri dagokionez, Nafarroan gehien isurtzen duten enpresak ondokoak dira: Castejongo zentral termikoak, Olaztik Portland eta Zubiriko MAGNA. Azken honek, 2017an, 275.501 tona isuri zituen, Diario de Navarrak informatzen zuen bezala Nafarroako Gobernuaren datuak erabiliz.

Gauzak horrela, MAGNA enpresak Artesiagan magnesita ateratzeko proiektua jende aurrean jarri zuen egunetan, Nafarroako Gobernuak, bere aldetik, Zubiriko planta zabaltzeko inbertsioa foru intereseko izendatu zuen. Eta egun batzuk geroxeago, hori jakinarazi zitzaigun alegazioak egin ahal izateko zabaltze proiektu honi. Proiektu berri honekin, minerala prozesatzeko labe berri bat eraiki nahi dute, enpresan ekoizpen-linea berri bat horrela irekiz.

Beste behin ere, Nafarroako Gobernuak **parte hartze publikoari trabak** jartzen dizkio. Alde batetik, kontsultak **uda betean** zabaltzen ditu. Beste aldetik, **bi prozesu aldi berean** martxan jartzen ditu, zailago eginez berez teknikoki

konplexuak diren gaiak aztertzeke lanak.

Aurrekoa gutxi ez balitz, Zubiriko planta zabaltzeko proiektuak Nafarroako Gobernuaren **oniritzia** dauka. Teorian, edozein proiekturen ingurumen-eraginaren azterketa *neutrala* izan beharko litzateke, ikusteko bateragarria ote den ingurumenarekin eta giza-jarduerekin. Hala ere, kasu honetan, egin beharreko ingurumen-eraginaren ebaluazioa hastapenetatik erabat desitxuratuta eta baldintzatuta dago, Nafarroako Gobernuak alde aurretik proiektuari oniritzia eman eta *"foru intereseko"* izendatu duelako.

Beraz, proiektu hauen aurrean, **parte hartze publikoa goitik behera baldintzatua eta biziaria dago**, eta herritarrok ez dugu inolako bermerik prozesu garden eta neutral bat izateko. Gainera, Zubiriko planta zabaltzeko proiektua estuki lotuta dago Erdizen ireki nahi duten magnesita-harrobiarekin. Beraz, agerikoa da enpresaren asmoa, Artesiagan materiala ateratzeko baimena lortzerako, lehenbaitlehen martxan jartzea Zubiriko produkzio-linea. **Horrela argi dago enpresak handitu nahi duela bere ekoizpena, eta horretarako Erdizeko magnesita behar duela.**

Hala ere, eta duela gutxi salatu dugun moduan, uste dugu Erdizeko meategia ezin dela ireki, **holako jarduerak bat egiten ez baitu bere kontserbazioarekin**. Gure web orrialdean, argazki erreportaje bat atera dugu ikustarazteko ustiapen honek ekarriko lituzkeen ondorio larriak.

Erdizen harrobi-proiektua egitea ezinezkoa bada, Zubiriko plantaren zabaltzea ez da bideragarria. Beraz, MAGNaren proiektua bertan behera uztea eskatu egin behar da.

Baina badira arrazoi sakonagoak proiektu honi ezetz esateko. Lehenago esan bezala, **enpresak sekulako erregai fosil kontsumitu egiten du** (petrolio-kokea eta gas naturala bereziki). Labe berri bat jarriz gero, kontsumoa halabeharrez **handiagotuko** da.

Kontuan hartu behar da enpresa hau kutsatzaileenetariko bat dela Nafarroan, sufre eta nitrogeno dioxidoan, eta Aldaketa Klimatikoan hainbeste eragiten duen CO2an, lehen esan dugun bezala. Baldintza hauetan, planta berriak kontsumo energetikoa areagotu eta **kutsatzaileen emisioa handitzea ekarriko luke**. Oso **esanguratsua** da enpresak aurkeztutako proiektuaren dokumentazioan **aipamenik ez egitea** aldaketa klimatikoan eduki dezakeen eraginari, erabat derrigorrezkoa dena 21/2013 legean, ingurumen-ebaluazioari buruzkoan.

Are gehiago. Ez dago onartzerik enpresak eta Nafarroako Gobernuak **enplegua erabiltzea txantaje moduan** holako proiektuak justifikatu ahal izateko. Enplegua eta ingurumenaren defentsa ez daude elkarren aurka, askotan planteatzen duten moduan; aitzitik, **elkarren aurka daude multinazionalen diru-gosea edozein bide erabilita eta ingurumena eta enplegu sostengarria defendatzen dugunon artean**. Nafarroako Gobernuak egiazko *"foru interesa"* izan beharko luke ahalik eta lasterren neurriak hartzeko enplegua banatu eta sortzeko, aldaketa klimatikoa eta eredu energetikoaren aldaketa kontuan hartuta.

Bistan da MAGNaren asmoa, Monte Alduide Kontserbazio Bereziko Eremutik

magnesita ateratzeko, lotuta dagoela haren ekoizpena handitzeko intentzioarekin. Bi proiektu hauekin aurrera eramanez gero, **Nafarroan hurrengo urteotan ingurumenari eta oreka klimatikoari egin litezkeen erasorik gogorrenak izanen lirateke**. Gaur egun bizi dugun testuinguruan, non larrialdi klimatiko eta baldintza sozioekonomikoak okertzen ari diren, holako proiektuek ez dute tokirik, eta okerreko norabidetik eramaten gaituzte. Bada garaia ingurumenari erasoak gelditu eta aldaketa klimatikoak eskatzen duen trantsizio soziala eta enplegu duina sortzeko. Sustrai Erakuntzak dei egiten die Nafarroako herritarrei proiektu txikitzaile hauen kontra jarri eta alternatiba justuagoen alde aritzeko. Ez dago denbora galtzerik.